

AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA: 5.GAIA. URTEKO KONTUEN AUDITORIA-TXOSTENA

Galdera bakoitzean erantzun zuzena(k) azpimarratu:

1. Auditoria-txostenari buruz

- a. Iritzia “aldatu gabekoa” (aldekoa) denean, urteko kontuek inolako motako errakuntzarik ez dutela adierazi nahi du, ezta materialtasunik gabeko akatsik.
- b. “Aldatutako iritzia” salbuespenik izateko arrazoia oker materialak eta orokorrak egotea da.
- c. Auditoreak ez ditu ikuskatutako kontabilitate erregistroetatik atera ez diren eta kudeaketa txostenean dauden bestelako informazioa egiaztatzeko proba gehigarriak egin behar.
- d. “Aldatutako iritzia” kontrako iritzia izateko, auditoria-nabaritasun nahikoa eta egokia lortu ondoren, okerrak materialak direla eta egoera finantzarioetan eragin orokorra dutela ondorioztatuko da.

2. Auditoria-txostenean elementuen eta paragrafoen ordena logikoa duena adierazi:

- a. Auditorearen erantzukizunak, auditoretzaren funtsezko gaiak (edo alderdi garrantzitsuenak), auditorearen iritzia.
- b. Aurkezpena, iritziaren oinarria, auditorearen iritzia.
- c. Auditorearen iritzia, iritziaren oinarria, auditoretzaren funtsezko gaiak (edo alderdi garrantzitsuenak).
- d. Enfasi paragrafoa, bestelako informazioa, auditorearen iritzia.

3. “Aldatutako iritzia” duen auditoria-txostena:

- a. Mota hauetakoa izan daiteke: salbuespenekin, kontrakoa edota ukatua.
- b. “Aldatutako iritzia” duten auditoria-txostenetan ezin dira inolaz ere enfasi paragrafoak adierazi.
- c. Iritzia ukatzearen arrazoia auditoria-nabaritasun falta oso esanguratsuen ondorioa izan daiteke.
- d. Iritziaren oinarria paragrafoan “aldatutako iritzia” zergatik eman den azalduko da.

4. Auditoretzaren funtsezko gaiak (edo alderdi garrantzitsuenak):

- a. Auditorearen iritzi profesionalaren arabera urteko kontuen auditoretzan hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuen deskribapena egingo da eta auditoreak arrisku horiei emandako erantzunen laburpena.
- b. Auditoreak ez du arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik eman behar. Barne-kontrolaren ezagutza ikuskatutako entitatean egon daitezkeen erroreak eta eragina eduki dezaketen faktoreak identifikatzeko baliogarria da, eta horrela auditoria prozeduren izaera, unea eta eremua zehazten lagunduko du.

5. “Urteko kontuetako memoriako 22. oharrean jasotakoan arreta jartzeko eskatzen dugu, Sozietatearen ekoizpen-instalazioetan izandako sutearen ondorioak deskribatzen dituen. Egoera honek ez du gure iritzia aldatzen.”. Aurreko hau ze paragrafo mota izango litzateke auditoria-txostenaren barruan?

- a. Iritzi paragrafoa.
- b. Iritziaren oinarri paragrafoa.
- c. Enfasi paragrafoa.
- d. Funtzionamenduan dagoen enpresari buruzko paragrafoa
- e. Auditoretzaren funtsezko gaiak (IPE bada) edo auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenei buruzko paragrafoa
- f. Beste auzi batzuen paragrafoa
- g. Zuzendaritzaren / Entitatearen administrazio kontseiluaren ardura kontuei dagokien paragrafoa

6. Urteko Kontuen inguruan auditorearen erantzukizuna

- a. Auditorearen helburuak honako hauek dira: urteko kontuek, beren osotasunean, iruzurra edo errorea dela-eta akats materialik izango ez duten segurtasun arrazoizkoa lortzea eta iritzia duen auditoretza-txostena igortzea.
- b. Espainian indarrean dagoen kontuen auditoretzaren arautegia jarraituz egindako lan guztian zehar eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardungo du.
- c. Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen du iritzia emateko oinarria izateko.
- d. Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen du, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- e. Aplikaturako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen du; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- f. Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen du; eta lortutako auditoretza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen du.
- g. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen bada, auditoretza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar dio edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar du. Ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira.
- h. Erakundeko administratzaileekin harremanetan jartzen da, besteak beste, planifikaturako auditoretzaren irismena eta egite datak, eta auditoretzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.

AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA: 5.GAIA EBAZPENA

1.	c; d
2.	c
3.	a; c; d
4.	a; b
5.	c
6.	a; b; c; d; e; f; g; h